

ESTERIBARKO TALDEEK, ELKARTEEK ETA BIZILAGUNEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN OINARRIAK, 2021. URTEAN ESTERIBARKO UDALAREN (TUTORETZAPEKO KONTZEJUAK) BAITAKO HERRIETAKO ZAINDARIEN JAIK EGITEKO

Esteribarko Udalak, bere aurrekontu orokorrek ezarritako mugen barruan, dirulaguntzak emanen ditu, honako oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1.- DEIALDIAREN XEDEA

2021. urtean zehar Esteribarko Udala osatzen duten herrietako zaindariaren jaiak (Tutoretzapeko Kontzejuak) sustatzea eta babestea izango da laguntzen helburua.

2.- FINANTZIAZIOA

Dirulaguntza horiek honela finantzatuko dira. 3380 4820001 aurrekontu-sailaren kontura (AUZO-ELKARTEEN JAIETARAKO EKARPENA), HERRIAK ETA 3380 4820002 OLLOKI. Esteribarko Udalaren 2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorreko JAIK AUZO-ELKARTEENDAÑO EKARPENA partidaren ezarritako gehieneko zenbatekoarekin.

Onuradunek gehienez 400 € lortu ahal izango dituzte kopuru finko gisa, eta deialdia ebazteko unean Udal Erroldan inskribatutako biztanle bakoitzeko 15€.

Era berean, Esteribarko Udalak bere gain hartuko ditu, behar izanez gero eta onuradunak hala eskatuta, gehienez puzgarri baten kostua (Ollokiren kasuan, kopuru hori handitu egingen da) komun kimiko baten kostua (Ollokin kopuru hori handitu egingen da), elektrizitate hargunearen egokitzapena, karparen muntaia eta desmuntaia, mahai eta aulkien mailegua eta erantzukizun-aseguruaeren kostua.

2.– DIRU LAGUNTZA JASOTZEN AHAL DUTEN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen proiektuak Esteribarko Udalaren baitako Tutoretzapeko Kontzejuetako herrietako jaiei dagozkionak izanen dira.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira:

- a) Asistentziazko jarduerak (antolatzaileen soldatak, dietak...)
- b) Bazkariak eta afariak
- c) Ausazko jokoetan parte hartzea
- d) Esteribartik kanpo egiten diren jarduerak
- e) Elkartearen edo kolektiboaren beraren mantentze gastuak ala gastu orokorrak
- f) Piroteknia ala bigantxak askatzea.

4.- ESKATZAILEAK

Diru laguntza eskatu ahalko dute izaera soziala, kulturala duten elkarteek eta kolektiboek zein Esteribarren bizi diren herritarrek, irabazi asmorik gabekoak eta era iraunkorrean Esteribarren baztertzailleak ez diren eta ibarreko herritarrei zuzenduriko jarduerak antolatzen dituztenak.

Hauek dira udal laguntza hauen onuradun izateko bete beharreko baldintzak:

1.- Eskatzailea Elkartea ala kolektiboa baldin bada.

- a) Legez eraturako entitatea izatea.
- b) Helbide soziala Esteribarren izatea.
- c) Nafarroako Gobernuaren Elkarteen Erregistroan inskribatuta egotea.

2.- Eskatzailea herritarra baldin bada.

- a) Jaiak ospatuko diren herriko Udal Erroldan inskribaturik egotea ala ohiko etxebizitza bertan duela egiaztatzea.

5.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Jarduera baterako diru laguntza eskatze hutsak diru-laguntza hori arautzen duten oinarriak ezagutzea eta onartzea dakar. Dirulaguntzaren onuradunek ondoko betebeharrak izan behar dituzte:

- Ezin izanen dira batera ospatu bi herritako zaindariaren jaiegunak. Kasu horretan, herritarrek ados jarri beharko dute akordio batera iritsita. Ados jarri ezean, udalak esku hartuko luke.
- Diru-laguntzak deialdi horren barruan onartutako programa egiteko soilik erabiltzea.
- Esteribarko Udalak egin ditzakeen egiaztapen-jarduketak onartzea.
- Udalari jakinaraztea diruz lagunduko diren jardueretatik beste laguntza edo diru-sarrerara batzuk lortu direla.
- Deialdian jasotako dirulaguntza justifikatzea.
- Ahalik eta lasterren jakinaraztea programaren garapenean gertatzen diren aldaketak. Edozein aldaketa egiteko, balorazio-organoaren adostasuna beharko da.
- Udalak eskatutako baldintzetan justifikatzea diru-laguntzaren xedea bete dela.
- Udalak publizitatea eginen du, diruz lagundutako jardueretan kolaboratzailea dela adieraziz.
- Ordaindu beharreko zergak ordainduta izatea (udalarenak eta bestelakoak), baita Segurtasun Sozialaren kuotak ere, izatekotan.
- Laguntzak jaso zituen jarduera, programa edo proiektuetara bideratu ez zirela egiaztatuz gero, edo deialdi honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete ezean, ordaindutako diru-laguntzak itzultzea.

6.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Deialdi honen onuradun izan daitezkeen elkarteek edo auzotarrek hiru hilabeteko epea izango dute eskabidea eta aurreko atalean adierazitako dokumentazioa aurkezteko, deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik.

7.- ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA

Aurreko atalean aipatzen diren eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabide-orri orokorraren eredua, honako egiaztagiri hauekin batera:

a.1) Elkarte edo kolektiboen kasuan

- Nafarroako Gobernuaren Elkarteen Erregistroaren inskripzioaren egiaztagiria.
- Elkartearen datu fiskalak. (ordezkaria eta elkartearen IFK)
-

a.2) Herritarren kasuan

- egiaztatuko da diru-laguntzaren xede diren jaiak ospatuko diren herrian udal-errolan inskribatuta dagoen. Bestela, leku horretan bizi ohi dela egiaztatu beharko du.

a.3) Herriko jaietako egitaraua.

a.4) Gastu eta sarreraren aurrekontu banakatua, eurotan adierazita, eta honekin batera, baita erabiliko diren tokiko baliabideak zein bestelako erakunde edo entitateek emandako dirulaguntzak, betiere, dirulaguntzaren xede den aurkeztutako jarduera-programari dagokiona.

Ez bada eskabideekin batera aurkezten arau honetan adierazitako entitate eskatzaileari dagokion dokumentazioa, Esteribarko Udalak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikulua araber, 10 egun balioduneko epea emanen du, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera, falta den dokumentazioa aurkezteko edo aurkeztutako akatsa zuzentzeko.

Emandako epean baldintza hori betetzen ez bada, eskaera artxibatuko da, eskatzaileak atzera egin duela ulerturik.

8.- EBAZPENEA

Udal honek aurkeztutako eskabideak baloratuko ditu eta dirulaguntzak Alkatetzaren ebazpen bidez emanen dira.

9.- DIRU LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK

Diru-laguntza emateko, kontuan hartuko dira herriko jaietako jardueren programa eta aurrekontua, eta, udalak egoki irizten badu, gehienez ere, honako hauek emanen ditu:

- a) 400 € kopuru finko gisa eta 15 €-ko kopuru aldakor gisa, deialdia ebazteko unean udal-errodan inskribatuta dagoen biztanle bakoitzeko.
- b) Komun kimikoen kostua.
- c) Elektrizitate hargunearen egokitzea
- d) Karpak muntaia eta desmuntaia
- e) Aulkiak eta mahaia maileguan uztea
- f) Erantzukizun zibileko aseguruaren kostua

Puzgarriei dagokienez, **Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuko Joko eta Ikuskizun Publikoen Atalak erabilera publikorako ekipamendu hezigarriak baimendu, instalatu eta zerbitzuan jartzeko ezarritako protokoloan** xedatutakoa aplikatuko da, eta, ondorioz, honako hauek beharko dira:

- Ekitaldiaren antolatzaileak eskabidea aurkeztea, jarduera hasi baino 15 egun lehenago gutxienez, ondokoak zehaztuz instalazioaren kokalekua eta zerbitzuan jartzeko hasiera- eta amaiera-datak adierazita, eta ondoko dokumentazioa:
 - a. Instalazioaren dokumentazio teknikoa, ekipoaren eta segurtasunarekin lotutako alderdi esanguratsuenen deskripzioa.
 - b. Fabrikatzailearen edo hornitzailearen ziurtagiria, ekipoa en 14960 arauaren arabera edo segurtasun-baldintza baliokideak betez fabrikatu dela egiaztatzen duena.
 - c. Ekipoa berrikusteari edo mantentzeari buruzko ziurtagiria edo agiri baliokidea.
 - d. Erantzukizunpeko adierazpena, instalazio- edo gainbegiratze-baldintzak eta organo eskudunak zehazten dituenak betetzen direla adierazten duena.
 - e. erantzukizun zibileko aseguru, jarduerak izan ditzakeen arriskuak estaltzen dituen, sute-arriskua barne.
 - f. Zerbitzua martxan jarri aurreko ikuskapenaren emaitzari buruzko txostena.
 - g. Udalak, behar izanez gero, erantzukizunpeko adierazpenean azaldutakoa betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu ahal izango du, bai eta ekipoen instalazioa ikuskatu ere, horien segurtasuna egiaztatzeko.
- Aldi baterako instalazioetan, instalazio eramangarrietan edo instalazio desmuntagarrietan egin nahi diren jolas-jarduerak udal-lizentzia berezia beharko dute, eta lizentzia hori administrazio-prozedura laburtu batean emango da, kasu bakoitzerako segurtasun-baldintza egokiak betetzen direla egiaztatu ondoren (6 eta 7 LF2/1989, martxoaren 13koa).
- Aurretiatzko ikuskapenaren emaitzari buruzko txostenik ez badago, instalazio-baimenak ekipoa zerbitzuan jartzea baldintzatu ahal izango du, baldin eta hura aurkezten bada.

10.- ORDAINKETA

Dirulaguntzak %100ean ordainduko dira aldez aurretik. Ordainketa zaindariaren eguna baino hilabete lehenago egingen da. Ordainketa 2 hilabeteko epean erregularizatuko da, eskatutako gastuen frogagiri guztiak aurkeztu ondoren.

Onuradunak ez badu behar bezala justifikatzen diruz lagundutako programa egin dela, itzultzeko eskatuko da, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren I. kapituluaren xedatutakoaren arabera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

11.- JUSTIFIKAZIOA

Justifikazioak, oro har, dokumentazio hau jasoko du:

- a) Diruz lagundutako programaren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa.
- b) Diruz lagundutako programa finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda zehatza.
- c) Gastuak jatorrizko fakturen edo fotokopia konpultsatuen eta horien ordainketa-agiriaren bidez entregatuko dira.

12.- JUSTIFIKAZIORAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA.

Justifikazio-agiriak Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira, jaiak amaitu eta bi hilabeteko epean. Epe hori luzaezina izanen da, ez da dokumentazio osagarririk onartuko behin epe hori amaituta.

Oinarri honetan adierazitako dokumentazioa osoa ez bada, Esteribarko Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua arabera, 10 egun baliaduneko epea emanen du, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, falta den dokumentazioa aurkezteko edo aurkeztutako akatsa zuzentzeko.

Errekerimendu hori ez bada betetzen emandako epean, eskaera artxibatu egingo da, eta eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

13.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

- a) Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren xedatutakoa beteko da (toki-erakundeen administrazioaren diru-laguntzak emateko eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen du lege horrek).
- b) Zehapen-prozedura Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa izango da.

14.- DIRU LAGUNTZEN ARAUBIDE OROKORRA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Esteribarko Udalaren kultura, hezkuntza, kirol, gazteria, laguntza, humanitate eta gizarte helburuetarako diru-

laguntzak arautzen dituen Ordenantza aplikatuko da (2005eko apirilaren 27ko NAO, 50. zk.).

Halaber, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta horrekin bat datozen gainerako arauetan xedatutakoa beteko da

Esteribarren, sinadura elektronikoak adierazitako datan

ALKATEA

Stua: M^a Matilde Añon Beamonte Anderea